

Zenbaki honetarako aukeratu dizuegun espezie eder honen bidez, landaretza psamofiloa ezagutzeko aukera izango dugu. Dunetako lurruntza aztertuko badugu ere, bere familia eta generoari buruzko jakingarri batzuk ikusiko ditugu buru-belarri murgildu aurretik.

Konbolbulazeo asko landare igokariak izaten dira —ezkerre zuria esate baterako—; zenbaitetan bizkarroiak ere izan daitezke eta orokorrean, simetria erradialeko lore handiak azaltzen dituzte. Familia honen barruan, bost genero ezagutzen dira Europan, nahiz eta horietako bat, *Ipomoea* izenekoa, jatorriz Hego

Amerikakoa izan eta Europako hegoaldean naturalizatuta azaldu. Euskal Herrira etorrita bestalde, lau genero aipatzen dira. Horrez gain, *Calystegia* generoaren barruan Europan deskribatzen diren hiru espezietatik bi azaltzen dira gure artean.

J. Terés



Baina gatozen harira. Dunetako lurruntza landare psamofiloen artean ederrenetakoa dela esan daiteke. Herrestaria da eta hondar gainean koloretako sare finkatzaile bat osatzen du. Bere hostoak zertxobait mamitsuak dira eta giltzurrun-forma izaten dute. Loreak ere oso deigarriak dira eta pendunkulu luze bati amaiera ematen dion inbutu-formako korola azaltzen dute. Handia da (4-5 cm-koa) eta kolorez arrosa argia. Maiatzetik uztailean bitartean loratzen da bereziki. Fruitua lau kuskutu dituen kapsula da eta bere barnean, hazi biribil beltzak ditu.

Landare hau duna eta hondartzetako zona mugikorretan zabaltzen da normalean eta Euskal Herrian ere, horrelaxe gertatzen da, hots, aukera hori eskaintzen duten azken inguruetan ikus daiteke. 1870. urtean aurkitu zuten espezi hau Willkomm eta Lange botanikoeek Donostian eta Portugaleten. Beste zenbait botanikoren ikerketek esker, gure kostaldeko beste zenbait gunetan aurki zitekeela jakin dezakegu gaur egun, baina tamalez, eskualde askotan nagusitzen ari den giza-presioak desagertarazi du gure artetik landare eder hau.

Sendabelar gisa ere erabiltzen du askok Dunetako lurruntza, duen erretxina bati esker purgarri bortitza omen da eta. Bere errizoma hidropesia, paralisia, eskorbutua eta erreuma sendatzeko ere erabiltzen da. 🌸

* Naturalista.


Hare-muiunetako landare herrestaria: DUNETAKO LURRUNTZA

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOA

Dunetako lurruntza

Familia: konbolbulazeoak
Espezia: *Calystegia soldanella*
Banaketa: banatua eta eksklusiboa
Habitata: hondartza eta duna mugikorrak
Sendabelarra: bai



Banaketa ■